


## Mikroorganismoak hidrogeno hutsezko atmosferan bizi daitezke

Massachusettseko Institutu Teknologikoak (MIT, AEB) egindako esperimendu baten arabera, *Escherichia coli* bakterioa eta *Saccharomyces cerevisiae* legamia gai dira  $H_2$  besterik ez duen atmosfera batean bizitzeko. Gure planetako atmosfera nitrogenoz, oxigenoz eta argoiez osaturik dago, batez ere, eta ez zuten espero hidrogeno hutsez bizitzeko ahalmena izango zutenik. Lurreko atmosferan baino 2-2,5 aldiz motelago hazi dira, baina, emaitzak ikusita, uste dute bizia uste zena baino ingurune exoplanetario askoz ere zabalago batean sor litekeela.



ARG.: Wikimages, Pixabay

Ikertzaileen arabera, litekeena da exoplaneta arrokatsu handiek Lurrak baino  $H_2$  gehiago pilatzea beren atmosferan, eta eskatu dute, belaunaldi berriko teleskopioak martxan daudenerako, halakoak ere sar ditzatela biziaren bila aritzeko planeten balizko zerrendan.


*E. coli* bakterioaren makinaria metaboliko aberatsa ere nabarmendu dute, gas-mota ugari sor ditzakeela ikusi baitute —oxido nitrosoa, amoniakoa, metanotiola, dimetil sulfatoa eta isoprenoa, besteak beste—. Gas horiek guztiak bizi mikrobianoaren arrastotzat hartu beharko liritekeela adierazi dute. [Nature Astronomy aldizkarian argitaratu dute ikerketa](#). ●

## Kolibri baten neurriko dinosauroa anbarrean

Orain arte ezezaguna zen dinosauro baten garezurra aurkitu dute, 99 milioi urteko anbar-zati batean, Myanmarren. *Oculudentavis khaungraae* deitu diote, eta topatu duten dinosauro txikiena da (kolibri baten neurrikoa). Anbarean hain ondo gorde da, ezen sakon aztertzeko aukera izan dute.

Besteak beste, zehaztu dute garezurra 7,1 mm luze dela, eta oso begi-zulo handia du, muskerrenaren parekoa. Antza denez, begi-nini txikia zuen; hortik ondorioztatu dute eguneko zela. Neurriari buruz, berriz, gogorarazi dute txikitzea ohiko egokitzapena dela uharteetan, eta anbarra sortu zen ingurunea uhartez osatuta zegoela garai hartan.

Gaur egungo hegaztiekin alderatuta, ezaugarri oso primitiboak eta berriak ditu nahasian. Bestalde, neurri horretako hegaztiak ez bezala, harraparia zela uste dute, hortzak baitzituen (30 inguru, goian zein behean), eta intsektuak eta artropodoak jango zituela ondorioztatu dute. [Nature aldizkarian argitaratu dituzte emaitzak](#). ●



ARG.: Lida Xing.